

Idiazabal JIBko 21 gaztandegik nazioarteko 38 sari lortu dituzte

Ordiziako Gabonetako Azoka Bereziaren barnean, Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Izendapenak, ohore handiz, 2025an nazioarte mailan sariak irabazi dituzten gaztandegiak omentzeko **Esker Oneko Ekitaldia** ospatu du gaur, zeinetan saritutako gaztandegien presentzia paregabea egon den.

Ekitaldi hunkigarri hau, Idiazabal Jatorri Izendapenak Ordiziako Udalaren eta Ordiziako Idiazabal Gaztaren Kofradiaren elkarlanaz antolatu du. Ospakizuna Izaro Iraeta kazetari eta aurkezleak zuzendu du, Ordiziako alkatea den **Adur Ezenarro** eta administrazio publikoetako ordezkari ezberdinek lagunduta, besteak beste, **Nora Beltran de Otorra** Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendaria, **Arantza Ariztimuño**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Oreko zuzendaria eta **Joseba Beitia**, INTIAko balio-katearen koordinatzailea Nafar Gobernu Landa Garapen eta Ingurumen saileko ordezkari gisa.

Ekintza honen bitartez, Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Izendapenak gaztandegi horiei zorionak eta eskerrak eman nahi izan dizkie, Idiazabal JIBko gaztaren izen ona eta ospea zabaltzen laguntzeagatik. Horretaz gain, 2025. urte berri hau, ekoizpen-kanpaina hasi berriarekin, sektorearen lan onak bere emaitza preziatuak ematea ahalbidetzen duen klima-baldintza eta egoera ekonomikoa opa ditu.

Lortutako sariak:

GOURMET QUESOS MADRID:

- **ANDER BARANDIARAN MUJIKA, Idiazabal (Gipuzkoa):** LEHEN SARIA “Ardi esne gordinez egindako gazta erdi ondua” kategorian.
- **BAZTARRIKA, Gabiria (Gipuzkoa):** HIRUGARREN SARIA “Ardi esne gordinez egindako gazta erdi ondua” kategorian.
- **GOINE BERRIA Asteasu (Gipuzkoa):** HIRUGARREN SARIA “Ketua” kategorian.

PREMIO ROMA:

- **ANDER BARANDIARAN Idiazabal (Gipuzkoa):** HIRUGARREN POSTUA BJD/AGB-dun gazten nazioarteko kategorian

ARNIU CHEESE FEST:

- **RICARDO REMIRO Eulate (Nafarroa):** URREA Ardi Onduen kategorian eta URREA ketuetan.
- **GAROA Zerain (Gipuzkoa):** ZILARRA ketuetan

GREAT TASTE:

- **AIZPEA Olaberria (Gipuzkoa):** Izar bat gazta naturalarekin
- **J ARANBURU Idiazabal (Gipuzkoa):** Bi izar gazta naturalarekin
- **LA LEZE Ilarduia (Araba):** Bi izar gazta naturalarekin y hiru izar gazta ketuarekin
- **SC KORTARIA Lekaroz (Nafarroa):** Bi izar gazta naturalarekin

SEU D'URGELL:

- **LA LEZE Ilarduia (Araba):** Urrezko domina

ENCUENTRO DE QUESOS CHILE 2025:

- **BAZTARRIKA, Gabiria (Gipuzkoa):** ZILARRA gazta naturalarekin
- **SC KORTARIA Lekaroz (Nafarroa):** URREA gazta naturalarekin
- **SC LOPERENA Egozkue (Nafarroa):** URREA bere gazta ketuarekin

WORLD CHEESE AWARDS:

- **ANGEL LINZOAIN Iragi (Nafarroa):** Urrezko domina bat, zilarrezko domina bat eta brontzezko domina bat
- **BAZTARRIKA, Gabiria (Gipuzkoa):** Zilarrezko domina bat
- **BOSTIBAIETA Legutio (Araba):** Zilarrezko domina bat
- **BURUAGA Etxabarri-Ibiña (Araba):** Brontzezko domina bat
- **GAROA Zerain (Gipuzkoa):** Brontzezko domina bat
- **GAZTANDEGI DORREA:** Zilarrezko domina bat
- **GOINE BERRIA Asteasu (Gipuzkoa):** Zilarrezko domina bat eta brontzezko domina bat
- **J ARANBURU Idiazabal (Gipuzkoa):** Brontzezko domina bat
- **JULEN KARASATORRE Arriola (Araba):** Zilarrezko domina bat
- **LA LEZE Ilarduia (Araba):** Zilarrezko domina bat eta brontzezko domina bat
- **OIHAN TXIKI KOOP Orexa (Gipuzkoa):** Brontzezko domina bat
- **PATXI LOPEZ DE URALDE Larrea (Araba):** Urrezko domina bat
- **SANTAMAÑE Markina-Xemein (Bizkaia):** Brontzezko domina bat
- **SAT OLANO Egin (Araba):** Zilarrezko domina bat
- **SUSTRAI GAZTATEGIA Uharte-Arakil (Nafarroa):** Urrezko domina bat
- **TROSKAETA Ataun (Gipuzkoa):** Brontzezko domina bat

WORLD CHEESE AWARDS: sari bereziak

- **LA LEZE Ilarduia (Araba):** Super Urrea domina bat eta Euskal Herriko Gazta Onenaren Garaikurra
- **PATXI LOPEZ DE URALDE Larrea (Araba):** Super Urrea domina bat

*Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Miriam Molinarekin 615 779 888, edo Idiazabal Gazta jatorri-izendapen bulegoarekin 945 289 971 edo baita, aansorregi@idiazabalgazta.eus e-postan. Gure ordutegia 08:00etatik 15:00etara da. **Gaztandegiekin harremanetan jartzeko telefonoak www.idiazabalgazta.eus webguneko "ekoizleen" erlaitzean aurki daitezke.***